
239. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

Zertan laguntzen dizu diruz udalak?



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu indarkeriak salatzeko telefonoa:
688 758 299

Azpeitia
Denontzat

Ale honetan zer?

Herritarren beharrei erantzuteko, laguntzak hainbat arlotan 3

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala. · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan dago Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo edozein kontsulta egin dezakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14.30era izaten da zabalik. Ostegunetan, berriz, 07:30etik 19:30era eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Herritarren beharrei erantzuteko, laguntzak hainbat arlotan



Herritarrengandik gertu egotea eta herritarren eguneroko beharrei erantzutea da udalaren egiteko nagusietako bat. Horretarako, udal zerbitzuak eta baliabideak ez ezik, funtsezko tresna dira dirulaguntzak ere. Horiei esker, hainbat arlotan laguntza eskaintzen zaie herritarrei, familiei, elkarteei eta tokiko eragileei.

2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak jasotzen duenez, udalak hainbat modutan ematen ditu laguntza horiek. Batzuk aurrekontuan bertan aurreikusita daude (dirulaguntza izendunak); beste batzuk, berriz, zuzenean ematen dira interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak tarteko. Era berean, badira legeak hala ezarrita eman beharreko dirulaguntzak ere.

Nolanahi ere, dirulaguntza gehienak deialdi publikoen bidez eta norgehiagoka erregimenean ematen dira. Hau da, deialdia argitaratu ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzen dira, eta deialdi bakoitzean ezarritako irizpideen arabera banatzen da aurrekontuan jasotako dirua.

Udalak hainbat dirulaguntza deialdi ditu zabalik asteotan.

Udalak hainbat dirulaguntza deialditan eskaerak egiteko epea dauka zabalik

Etxeak nahiz etxepeak berritzeko laguntzak

Berri samarrak dira Azpeitiko Udalak etxebizitzetan eta bizitegi eraikinetan (etxepe) hobekuntzak egiteko ematen dituen laguntzak. Energia eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, kontserbaziorako eta energia iturri berriztagarriak instalatzeko obretarako dira. 2022an egin zuen lehen deialdia, eta estimazio handia izan dute hasieratik. Aurten, 250.000 euro bideratuko ditu udalak laguntza horietara, iaz baino 50.000 euro gehiago.


Egindako lanen arabera, norbanakoek zein etxebizitza komunitateek jaso ditzakete laguntzak. Programak lau laguntza ildo ditu:

- Irisgarritasuna hobetzeko lanak: igogailua jartzea edo aldatzea, bainuontziaren ordez dutxa jatzea, pasabideak edo ateak egokitzeko lanak...
- Energia eraginkortasuna hobetzeko lanak: eraikinaren edo etxebizitzaren inguratzaile termikoa eta beharrezko isolamendua hobetzeko lanak, galdarak aldatzeko lanak...
- Energia iturri berriztagarriak instalatzeko lanak: energia berriztagarriak erabiltzeko instalazioak egitea...
- Eraikinen kontserbazio obrak: fatxadak, teilatuak edo bestelako elementuak konpontzea...

Aurtengo deialdian, bi berrikuntza nagusi daude. Alde batetik, fatxadak mantentzeko eta birgaitzeko laguntzak udalerri osora zabaldu dira. Orain arte, Alde Zaharrera eta Urrestillara mugatzen ziren. Aurrerantzean, ordea, Azpeitiko gainerako eremuetako eraikinek ere jaso ahal izango dituzte laguntza horiek. Oro har, %25ekoak izango dira, eta Alde Zaharreko eta Urrestillako etxe zaharren kasuan, %40koak.

Azkenik, udalak %15 inguru handitu ditu laguntza lerro guztien gehieneko zenbatekoak, bizi kostuaren eta obren garestitzea kontuan hartuta.

Laguntzak jasotzeko, onuradunen familia unitatearen urteko diru sarrera haztatuak ezingo du 45.000 eurotik gorakoa izan.



Iazko onuradun kopurua: **55**

Aurtengo aurrekontua: **250.000 euro**

Eskaera egiteko epea: **urriak 31**

Herritarren beharrei erantzuteko, laguntzak hainbat arlotan

Alokairuaren kostuari aurre egiteko laguntzak

Azpeitiko Udalak dirulaguntza lerro propioa du etxebizitza baten hileko alokairu gastuari aurre egiten laguntzeko. 2026ko deialdian, gainera, bi berrikuntza nagusi sartu ditu: guraso bakarreko familiei ere zabaldu die laguntzak eskatzeko aukera, eta onuradun izateko gehieneko diru sarreren mugak %20 igo ditu. Aldaketa horien bidez, laguntza behar duten herritar gehiagorengana iristea lortu nahi du.

Udalaren alokairurako laguntzak hainbat kolektibori zuzenduta daude: 18 eta 35 urte bitarteko gazteei, mugikortasun urria edo ezintasun absolutua duten pertsonei, bananduta edo dibortziatuta daudenei, alargunei eta 70 urtetik gorakoei, eta aurrerantzean, baita guraso bakarreko familiei ere.

Laguntzaren zenbatekoa familia edo bizikidetza-unitatearen diru sarreren arabera kalkulatzen da, eta alokairuaren %35 eta %60 artekoa izan daiteke. Gehienez, hilean 350 euro jasotzeko aukera dago, eta Alde Zaharreko etxebizitzen kasuan, kopurua 400 eurora irits daiteke. Laguntza jasotzeko, etxebizitzak Azpeitian egon behar du eta hileko alokairuak ezin du 675 eurotik gorakoa izan.


Onuradunen diru sarreren mugak zabaldu egin dira 2026ko deialdian. Bi eskatzaile edo gehiago direnean, urteko diru sarrera haztatuek 42.000 euroko muga izango dute, eta eskatzaile bakarra bada, 33.600 euro. Iazko mugak 35.000 eta 28.000 eurokoak ziren, hurrenez hurren. Horrela, alokairuaren kostuari aurre egiteko beharra duten baina aurreko mugengatik laguntzetatik kanpo geratzen ziren herritar gehiagok aukera izango dute udalaren babesa jasotzeko.

Alokairurako laguntza horiek eskatu ahal izateko, eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunezko izaerarekin Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun edo Emantzipa laguntzak tramitatu beharko ditu, eta horiek ez baditu lortzen bakarrik izango du udalaren alokairurako laguntzak jasotzeko aukera.

Iazko onuradun kopurua: **7**

Aurtengo aurrekontua: **40.000 euro**

Eskaera egiteko epea: **urriak 15**



Etxe hutsak alokairura ateratzeko laguntzak

Azpeitiko Udalak 2025ean jarri zuen martxan etxe hutsak mobilizatzeko plana, erabilerarik gabe dauden etxebizitzak alokairura edo salmentara bideratu eta herrian etxebizitza eskaintza handitzeko helburuarekin. Plan horri lotuta sortu zuen, iaz, etxe hutsak egokitzeko dirulaguntza lerroa.

2026ko deialdian, 50.000 euroko partida jarri du. Etxebizitzak egokitzeko eta hobetzeko obrak zein beharrezko ekipamenduak finantzatzera bideratuko dira laguntzak. Ondoren, etxebizitzak alokairura atera beharko dira, besteak beste, Bizigune, ASAP edo merkatu libreko alokairu eskuragarriaren bidez. Azken aukera horretan, hileko alokairuak 675 eurotik beherakoa izan beharko du, eta etxebizitzak gutxienez bost urtez egon beharko du alokairuan.

Dirulaguntzak eskaerak aurkezten diren ordenaren arabera emango dira, baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean eta aurrekontua agortu arte. Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundutako jarduketaren %50 izango da gehienez, BEZik gabe, eta gehienez ere 3.000 euro etxebizitza bakoitzerako.

Aurtengo aurrekontua:
50.000 euro



Herriko ehun sozioekonomikoa sustatzeko laguntzak

Iazko onuradun kopurua:
115

Aurtengo aurrekontua:
400.000 euro

Eskaera egiteko epea:
urriak 15



Aurten ere 400.000 euro bideratuko ditu udalak ekonomia sustatzeko laguntzetara, herriko sare sozioekonomikoa sendotzeko asmoz. Deialdia ez dago industria enpresa handiei soilik zuzenduta, baizik eta era guztietako negozioek eskatu ahal izaten dituzte laguntzak. Azken urteetan, esate baterako, udalak ahalegin berezia egin du zerbitzuen eta lehen sektorearen beharrei erantzuteko.

Dirulaguntza programa lau ildotan banatzen da: zerbitzu eta lehen sektoreko jarduerak indartzea; industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta eraikuntza sektoreko proiektuak sustatzea; ekintzailetza eta enpleguaren sorrera bultzatzea (bereziki gizarte ekonomian eta izaera estrategiko edo berritzailea duten jardueretan); eta lehen sektorean, zerbitzuetan, ostalaritzan eta industrian enplegua sustatzea.

Aurtengo deialdiak hainbat berrikuntza dakartza. Batetik, bertako produktuen kontsumorako laguntzaren gehieneko zenbatekoa 8.000 eurotik 12.000 eurora igo da. Bestetik, zerbitzu sektoreko inbertsioen artean soinu mugatzaileak instalatzea ere diruz lagundu ahal izango da. Laguntzak jasotzeko baldintzen artean, jarduera Azpeitian kokatutako kaleko establezimendu fisikoetan egitea jarri da.

Eskaera handia izaten dute sustapen ekonomikoko laguntzek. Iaz, adibidez, eskaera guztiei aurre egin ahal izateko, udalak 400.000 eurotik 483.500 eurora handitu zuen partida. 2025eko deialdian, lehen aldiz, zerbitzu eta lehen sektoreko jarduerak indartzeko lerroak izan zituen eskaera gehien.

Gizarte larrialdietarako laguntzak

Zailtasun ekonomiko larriak dituzten pertsonen eta familien oinarrizko beharrizanei erantzuteko nahiz zaurgarritasun egoeretan dauden pertsonak babesteko, 168.000 euroko laguntza lerroa du sortuta Azpeitiko Udalak 2026ko ekitaldirako.

Laguntza horien bidez, etxebizitzari eta eguneroko gastuei lotutako hainbat egoerari aurre egiten laguntzen du. Besteak beste, ohiko etxebizitzaren alokairuari, etxebizitza eskuratzeko fidantzari edo antzeko gastuekin zerikusia duten beharrei erantzuteko balio dute laguntzek, baita etxebizitzaren mantenuari lotutako gastuak eta oinarrizko hornidura eta beharrak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiei laguntzeko ere. Azken horien artean sartzen dira, besteak beste, elikadura, higienea eta eguneroko bizitzarako ezinbestekoak diren beste hainbat gastu.

Laguntzak ez daude egoera jakin batzuetara mugatuta; hau da, deialdiaren oinarrietan jasotzen den bezala, pertsona edo familia batek bizi duen egoeraren arabera egiten da balorazioa.

Iazko onuradun kopurua: **72**
Aurtengo aurrekontua: **168.000 euro**
Eskaera egiteko epea: **Abenduak 1**



Gizarte elkarteentzako dirulaguntzak

Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloan lan egiten duten elkarteen jarduerak, herrialde pobretuetako garapenerako lankidetza proiektuak, nazioarteko lankidetzan parte hartzen duten herritarren gastuak eta larrialdi egoeretan egiten diren ekintza humanitarioak babesten ditu Azpeitiko Udalak. Horretarako, 89.500 euroko aurrekontua bideratu du 2026ko deialdira.

Laguntza programa lau atal nagusitan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloko elkarteen jarduerak (19.500 euro). Gizarte zerbitzuen eta osasunaren arloan lan egiten duten elkarteei zuzendutako laguntzak dira. Hitzaldiak antolatzeko, dibulgazio kanpainak egiteko, prestakuntza ikastaroak antolatzeko eta abar ematen zaie laguntza.

- Herrialde pobretuetan garapenerako lankidetza-proiektuak (58.000 euro). Hegoaldeko herrialde pobretuetako populazio behartsuenen garapen politiko, sozial eta ekonomikoa errazten duten prozesuak eta proiektuak babestea da laguntza hauen xedea. Nortasun juridikoa duten gobernuz kanpoko elkarte eta erakundeei zuzenduta daude.

- Nazioarteko lankidetzan borondatez parte hartzen duten herritarrentzako laguntzak (2.000 euro). Azpeitiko herritarrek garapenerako lankidetzan parte hartzea eta elkartasunaren kultura sustatzea du xede lerro honek. Horretarako, herritarrek aukera dute lankidetza ekintzetan zuzenean parte hartzeko, betiere garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakunde baten bidez.

- Larrialdi egoeretako ekintza humanitarioak (10.000 euro). Laguntza lerro hori larrialdi egoerei erantzuteko ekintza humanitario puntualak egiteko da. Besteak beste, gatazka armatuek edo hondamendi naturalek eragindako egoeretan oinarrizko beharrak asetzeko proiektuak hartzen ditu barne.

Iazko onuradun kopurua:
15
Aurtengo aurrekontua:
89.500 euro
Eskaera egiteko epea:
Ekainean izan ohi da



Kirol arloko dirulaguntzak

Iazko onuradun kopurua: **22**
Aurtengo aurrekontua: **55.000 euro**
Eskaera egiteko epea: **Urriak 9**



Kirolak gero eta toki handiagoa du herritarren eguneroko bizitzan. Herriko talde eta elkarteek eskaintza zabala dute, eta udalak babesa ematen die beren jarduerak aurrera ateratzeko, kirolarien osasun azterketak egiteko eta prestakuntza teknikoa hobetzeko. Irabazi asmorik gabeko herriko kirol eragileei zuzendutako dirulaguntza programak guztira 55.000 euroko aurrekontua du.


Laguntza horien bidez, hainbat gasturi aurre egiteko aukera dute talde eta elkarteek. Alde batetik, 43.000 euroko partida dago kirol kluben ohiko jarduera eta egitura garatzeko. Bestetik, 8.000 euro bideratzen dira kirolarien osasun azterketetara. Hirugarren laguntza ildoa prestakuntza teknikoari dagokio. Guztira, 4.000 euroko diru poltsa dago kirol kluben kualifikazio teknikoa garatzeko.

Kultur elkarteentzako dirulaguntzak

Urte osoan, kulturaren bueltan sortutako ekitaldi ugariz gozatzeko aukera izaten da Azpeitian: antzerkia, kontzertuak, dantza emanaldiak, bertso saioak... Jarduera horien atzean, sarri, kultur talde eta elkarteen lana egoten da, eta sortzen zaizkien gastuei aurre egiten laguntzeko, kultur elkarteentzako dirulaguntza lerroa du udalak.

2026ko ekitaldian, 47.500 euroko diru poltsa bideratu du. Dirulaguntzen helburua da udalerri dinamikoa, parte hartzailea eta kulturalki aktiboa sortzen laguntzea. Eskaerak egiteko epe jakin bat egon ohi den arren, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako jarduerak laguntzen dira.

Iazko onuradun kopurua: **18**
Aurtengo aurrekontua: **47.500 euro**
Eskaera egiteko epea: **Apirilean izan ohi da**



Auzoetako festak antolatzeko dirulaguntzak



Iazko onuradun kopurua: **10**
Aurtengo aurrekontua: **60.200 euro**
Eskaera egiteko epea: **Martxo-apirilean izan ohi da**

Ondo merezitako festazale fama du Azpeitiak, eta ondo baino hobeto ikusi zen hori aurtengo saninazioetan, herriko festa batzordeetako ordezkariek bota zutenean txupinazoa. Azpeitiko Udalak, aurten, 60.200 euroko dirulaguntza lerroa du herriko auzoetan egiten diren festen programak finantzatzeko.

Laguntza horiek auzoetako herri festak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko pertsona eta erakundeei zuzenduta daude. Udalaren ekimenen osagarri edo ordezko diren eta erabilera publiko edo gizarte interesa duten jarduerak laguntzeko xedea dute.

Etxea herrigunetik urrun izateak edo garraio publikoaren aukerarik ez izateak mugikortasuna zaildu dezake egunerokoan: erosketak egiteko, medikuarengana joateko edo, besterik gabe, herriko bizimoduan parte hartzeko. Landa eremuen eta herrigunearen arteko joan-etorriak errazteko sortu zuen auzo-taxi programa Azpeitiko Udalak.

Aratz-Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Loiola, Nuarbe, Matxinbenta, Odria, Oñatz, Oñatzbidea eta Urrestillan erroldatuta daudenek dute auzo-taxia programa erabiltzeko aukera, baita auzo horietan zaintza lanetan aritzen direnek ere. Auzo-taxiaren onuradunek 3 euro ordaintzen dituzte bidaiako (bidaia berean erabiltzaile bat baino gehiago joanez gero, bakoitzak 1,50 euro), eta gainerako zatia udalak hartzen du bere gain.

Astelehenetik ostiralera, 07:30etik 20:30era, eta larunbatetan, 09:00etatik 20:30era, egindako bidaiak laguntzen dira diruz.

Auzo-taxia erabiltzeko laguntzak

Iazko onuradun kopurua: **35**
Aurtengo aurrekontua: **10.000 euro**
Eskaera egiteko epea: **Azaroak 30 edo aurrekontua agortu arte.**



Azpeitia
Denontzat



Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34
943 15 71 83

www.azpeitia.eus

Ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan: 08.00-14:00
- Astearteak: 08:00-13:30 eta 14:30-17:30
- Ostegunak: 08:00-13:30 eta 15:00-19:00 (udaletxean)